

I. eranskina. Iruzzarren aurkako borrokarako adierazpen instituzionala

Jon Bilbao Urquijo jaunak, NAN zenbakia 30.570.279-J duenak, kontseiluburu eraginkorra den aldetik, Surbisaren ordezkari gisa –Surbisak IFK zenbakia

Gauzak horrela, arau juridiko, etiko eta moralak betetzearekin konpromisorik gorena eta zuzentasun, objektibotasun eta zintzotasun printzipio zorrotzenekiko atxikimendua adierazi nahi du, horrela bere jarduerarekin lotura duten eragile guztiak jarduera horrekiko inolako iruzur eta ustelkeria susmorik izan ez dezaten.

Haren zerbitzurako langileek, enplegatu publiko diren aldetik, konpromisoa dute, beste betebeharrak batzuen artean, “Interes orokorrak zaintzeko, Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa errespetatuta, eta honako printzipioei jarraituz jokatzeko ere bai: objektibotasuna, zuzentasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoari emanak izatea, gardentasuna, eredugarri izatea, soiltasuna, iriste erraztasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kultur eta ingurumen ingurunea sustatzea eta gizon eta emakumezkoen arteko berdintasuna errespetatzea (urriaren 30eko 5/2015 Legea, enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzkoaren 52. artikulua).

Politika honen helburua da erakundearen barrenean iruzurrezko jarduera oro baztertua izan dadin sustatzea, eta iruzurrari aurre hartu eta hautemana izan dadin erraztea, horretarako balizko horien kudeaketarako prozedura eraginkorrak gara daitezen lagunduz.

SURBISAK entitate betearazle den aldetik bereganatu dituen funtzioen artean dago iruzurraren aurkako neurriak abian jartzea, Erkidegoko araudiak ezarritakoari jarraituz eta proportzionaltasun irizpideak errespetatuz. Era berean, hainbat arduradun eta prozesu kudeatzailearen laguntza du, bakoitzari dagokion ardurapeko sailen barne kontrolerako sistema egoki bat dagoela ziurtatzeko eta, kasua bada, neurri zuzentzaileen ezarpenean behar bezala jarduteko.

Iruzzarren aurkako borrokarako neurri eraginkorrak eta proportzionatuak abian jarriko dira, aurreko batzuetan lortutako eskarmentuan eta iruzur arriskuaren ebaluazioan oinarritutakoak.

Era berean, hautematen diren irregulartasunak edo iruzur susmoak salatu egingo dira, jakinarazpenerako barne-bideak erabiliz eta Agintaritza arduradunaren, Kontrol arduradunaren laguntzaz, bai eta Iruzzarren Aurkako Koordinaziorako Espainiako Zerbitzuaren eta Iruzzarren Aurkako Borrokarako Europar Bulegoaren laguntzarekin ere. Txosten guztiak konfidentzialtasun zorrotzenaz tratatuko dira, eta gai hauek erregulatzen dituzten arauekin bat eginez.

Azken batean, kontrol sistema bat ezarri da, ahal den neurrian, iruzur egintzei aurre hartu eta hautemateko eta, gauzatuz gero, horien inpaktua zuzentzeko.

Bilbon, 2024ko apirilaren 15ean.

Sinatua: JON BILBAO URQUIJO

Kargua: Surbisako Kontseiluburu Eraginkorra